



Odol emaileen beharrizana

Osasun sistamarako hain beharrezko diren odol emaileen kopurua bajatu egin da, eta herritarrak aktibatu gura dituzte. Irudian, Elorrioko emaile batzuk, Buskantz elkartean. • 2-3



Ibilaldia 2020: ikastolen aldeko jaia Elorriora bueltan da

Elorrio | 2020ko Ibilaldia Elorrioren ospatuko dute, maiatzaren 31n. Atzo iragarri zuten notizia, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan eginiko aurkezpenean. Horrela, Elorriokoek Lekeitioko ikastolari hartuko diote lekukoa. 'Hel horri' lema ipini diote datorren urteko edizioari. • 4.

Gure Eskuk sinadura bilketa erraldoia egin gura du

Durango | Gure Eskuren bozeramaile Josu Etxaburuk "herri erronka" bihurtu gura duen ekimenari buruzko xehetasunak eman ditu, asteon, Durangon. Erabakitzeko eskumenaren alde ahalik eta sinadurarik gehien batzea da helburua. Bilketa 2020ko hile batean kontzentratuko litza-teke. • 6.



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala
Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.
- Nazionalitate irakaskuntzak.
- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA:
ekainaren 17tik 27ra

Matrikula egiteko ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-13:00



Anton Cabo Ortiz
Bizkaiko Emaile Elkarteko presidentea
Galdakao

“Odol emaileen %5eko beheraldia izan dugu Durangaldean”

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Bizkaiko Emaileen Elkarteko presidentea da Anton Cabo, eta Usansoloko ospitalean Osakidetzak duen Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroan lan egiten du. Odol emaileen kopurua beherantz doala-eta, kezka agertu gura izan du. Odola emateak gure eguneroko osasun sisteman duen garrantzia azpimarratu eta deialdia egin du emaile berriak egiteko. Euskal Herrian hain errotoa dagoen elkartasuna indartzeko beharrezana ikusten du, gure ereduari eutsi eta industria farmazeutikoaren menpeko ez bihurtzeko. Ekainaren 15ean berbaldia eskainiko du Elorrion, Aldatsekuan, 12:00etan, bertako elkartekoek antolatuta.

Odol emaileak behar direla diozue. Zer gertatzen ari da?

Emaileen beheraldia izan dugu nazioartean. Ez da hemengo kontua bakarrik; Europan eta herrialde garatuetan gertatzen den zerbait da. Zerikusi handia du demografiagaz, eta baita krisiagaz ere. Bestalde, bizi ohituren aldaketa ere igarri da. Gure belaunaldia eta gaur egungo gazteena ez dira berdin bizi. Ni, 23 urte gaz, lanean nengibilen jada, eta

nire alabek, 26 urte gaz, ikasten jarraitzen dute edo aldi baterako lana dute. Gazteen artean dagoen ezegonkortasun handi horrek eragin egiten du emaile izateko. Leku finko batean bizi bazara, lan finkoa baduzu, bizitza egonkorra baduzu, errazagoa da emailetza zure bizimoduan txertatzea. Baina Bartzelonara joatekoa bazara edo bikoitekidea Beiruten topatzen baduzu, behin emango duzu odola, eta gero ohitura galduko duzu. Kontua ez da jendea solidarioa ez denik; unibertitateetara joaten garenean, beti bezala erantzuten dute, ondo.

Zenbat bajatu da emaileen tasa?

Erkidegoan %5eko beheraldia izan dugu gutxi gorabehera, eta baita Durangaldean ere. Durangon, adibidez, %3 bat bajatu da, baina bertako fabrika eta gune batzuetan, kasik %7. Hirietan beheraldi handiagoa izan ohi da, baina Atxondoren mo-

“**Plasmatik datozen produktueta industria farmazeutikoaren menpekotasuna dugu**”

“

Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan 50.000 emaile ditugu, eta bikoitza edukitzea litzateke ideala

—

duko herri txikietan, ez hainbeste, pertsonalagoa delako. Sare sozialak ondo daude, baina, azkenean, gertuko hartu-eman da jendea mugitzen duena.

Beraz, beheraldiari aurre egiteko, emaile berrien beharrezana dago.

Bai. Gainera, etorkizunera begirako plan bat osatzen gabilta eta, horretarako, emaile gehiago behar ditugu. Izan ere, plasmatik datozen produktueta industria farmazeutikoaren menpekotasuna dugu. Galdakaoko zentroan, badugu jadanik produktu horiek prozesatzeko moduko teknologia, eta 2.000 bat emaile lortu gura ditugu. Plasma emaile horiekin ez genuke industriaren beharrik izango, gure sistema publikoan geratuko litzatekeen diru pilo bat aurreztuko genuke, eta seguruagoa izango litzateke, altruista den emailearen kontrol maila ezagutzen dugulako.

Belaunaldi aldaketak eta gazteen egonkortasun faltak eragina eduki dute odola emateko kanpainetan

Atzerrian ordaindu egiten dute donazioagatik?

Bai. Mexikon erosten duzunean, donazioa 30 peso ordaintzen dute, AEBetan 42 dolar, Ingalaterran 15 bat libra... Grifols enpresa amerikarrak ospitale moduko eraikin erraldoi bat dauka, lau egunetik behin plasma ematera doazen emaille profesionalentzako esku-ohetuekin. Horrek esan gura du han odola ematera doana ez dela hemengoa bezalakoa. Hemen, normalean, emaille pertsona orekatua da, bizitza ordenatua egiten du, kirola praktikatzen du, bizitza osasuntsua darama eta arduratsua da. Parranda egin badu, ez da odola ematera etorriko. Emandakoa kalitate handikoa izatearren bermea ematen dizu horrek guztiak, eta komunitateari arreta emateko filosofia dago atzean.

Beheraldia egon arren, Euskal Herria oso solidarioa dela entzun izan dut beti.

Kalean edozeini ea odola ematen duen galdetzen badiozu, baietz erantzungo dizu, edo, bestela, "ez, baina..." motako esaldi bat botako dizu. Aitzakia eman behar horrek esan gura du eskema solidarioa instalatuta dagoela gizarte honetan. Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan 50.000 emaille ditugu, eta bikoitza edukitzea litzateke ideala. 50.000 emailleekin, bagabiltza beharrianak kubritzen, baina, kopurua handitu ezik, daudenak nekatzeko arriskua dago. Egunero 450 odol unitate behar ditugu, eta geratzen ez den gurpil bat da. Erkidegoan batzen den odol guztia Galdakaora ekartzen dugu. Horregaz, ospitaleen eskariak betetzen ditugu, baita klinika pribatuenak ere. Hemen, odolaren gestioa gure bitartez egiten da, kontrolatuta izaten dugulako eta erabilera arrazionala ematen diogulako. Guk badakigu ospitale bakoitzak ze kantitate daukan hozkailuetan biltegi-ratuta, eta, beraz, euren eskari bat datorrenean, horren arabera ematen diegu. Bidean ez da odolik alperrik galtzen.

Zein modutan erabiltzen da herritarrek emandako odol hori?

Odola hirutan banatzen dugu: hematieak, plasma eta plaketak. Hematieak odol asko behar den ebakuntzetan eta istripuen ostean erabiltzen dira, adibidez; plaketak, kartzinoma bat duten pertsonengan; plasma, deribatuak egiteko. Denok erabiliko dugu noizbait deribatu hematiko bat, eta hirutik batek beste bietako bat erabiliko du bere bizitzan zehar. Beraz, osasun sistemak produktu hauekiko duen menpekotasuna hil ala bizikoa da. Ebakuntzen %80tan odola behar izaten da. Mokorraren ebakuntzarako, lau poltsako erreserba kontuan hartzen da, esaterako, eta transplan-

te hepatiko baterako, 30. Gibel bat ematea ondo dago, baina 30 odol donazio jasota egon behar dira horren aurretik. Sarritan ahaztu egiten zaigu, baina beste donazioen aurretik egon behar du odolarenak.

Galdakaon duzuen zentroan, ez duzue odola bakarrik tratatzen.

Gure zentroan, era guztietako gaiekin lan egiten dugu; gure bankuan, azalak, hezurak, zilbor-hesteak, esnea... ditugu. Ikerketako taldeak ere baditugu, nazioartean punta-puntakoak direnak eta beste herrialde batzuekin elkarlanean ari direnak. Unibertsitateekin ere lankidetzak ditugu ikerketa eta garapenean. Honetarako guztirako, beharrezkoa da emailtzak egotea.

Gizarte aldaketek eragiten al dute emailleen ezaugarrietan?

Gure gizartera heldu diren etnia guztiak kontuan hartu eta arraza horien hemateka bat egiten joan beharko dugu. Izan ere, odol banku bat efektiboa izateko, bere komunitatearen ispilu izan behar du. Odol taldeen aldaera ugari egoten dira: talde arraroak dituen jendea, antigorputz irregularrak dituen eta bateragarritasun gutxi dutena... Atzeritik datozen etnia desberdin horiek konbinazio aberastasuna dakarte, eta bestela

“

Heldu diren etnia guztiak kontuan hartu eta arraza horien hemateka bat egiten joan beharko dugu”

—

“

Atzeritik datozen etnia desberdin horiek konbinazio aberastasuna dakarte”

—

topatzea zaila izan daitekeen odol mota bat eduki dezakete, hemen go pertsona batek beharrezko izan ahal duen odol konplexu bat. Aberastasun horrek aukera terapeutikoak handitzea dakar.

Odola eman gura duenak nora jo dezake?

Durangoko anbulatorio zaharrean eguenero egoten gara, 16:30etik 21:00etara bitartean. Beste herrien kasuan, txandakatu egiten dugu, eta herrietan ipintzen dute odola ateratzeko egunari buruzko informazioa.



ONDIZ
BILBAO GALLASTEGI

Durango

“550 emaille ditugu, baina berriak lortzea beharrezkoa da”

Zergatik zaude odol emailleen taldean?

Amak 38 urte daramatza Zaldibarko odol-emailleen elkartearen lanean. Beraz, betidanik jaso izan dudana zerbait da. Durangon zeuden ordezkariak utzi egin zutela jakin nuen, eta lagundu egingo niela esan nien Bizkaiko federaziokoei. Ea jende gehiago animatzen den! Bestalde, Durangon 550 emaille ditugu, baina berriak lortzea beharrezkoa da. Urtean 3 edo 4 bider ematea da ideala. Lagundu egiten duzu, eta, gainera, zure odola zaintzeko ere balio du.



IÑAKI ARMENDIA BASAURI
IRATI ARMENDIA BASAURI


Atxondo

“Gure odolak bizi asko salbatu ditzake”

Zergatik ematen duzue odola?

Irati: Etxean beti ikusi ditut odola ematen, eta 18 urtegaraz neuk ere ematea erabaki nuen. Gainera, 0-naizela jakinda, eta horrelako odol gutxi egotera, ematera bultzatuta sentitu nintzen! Gure odolak bizi asko salbatu ditzake.

Iñaki: Ebakuntzetan falta egiten du eta oso garrantzitsua da odola ematea. Beti pentsatu izan dut, inoiz zerbait gertatuko balitzait eta odola sartu behar badidate gustatuko litzaidakeela odol hori prest izatea.



JOSE JOAKIN
ARBELAITZ ARRUABARRENA

Elorrio

“1984an hasi, eta harrezkero 112 donazio egin ditut”

Elorrioko 312 odol emailleen artean, veteranoetarikoa zara, ezta?

1984an hasi nintzen odola ematen, eta, harrezkero, 112 donazio egin ditut. Ahal izan dudanean eman dut, urtean lau bider, eta, bestela, hirutan. Tentsioa altu edukitzen dut, eta buruko mina ere bai. Horregatik, medikuagaz berba egin nuen eta galdetu nion ea odola ematea ona izango zen. Berak, baietz, eta proba egin nuen. Geroago eta hobeto sentitzen nintzen. Niri on egiten didala eta beste batzuei ere on egingo diela ikusten dut.

'Hel horri!' lemapean, Ibilaldiaren 41. edizioa Elorrion izango da, 2020ko maiatzaren 31n

1999an eta 2006an antolatu eta gero, Elorrioko Txintxirri Ikastolak hirugarren urtez hartuko du Bizkaiko ikastolen jaia

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguenean jakitera eman zuten, 2020ko Ibilaldia Elorrioko Txintxirri ikastolak antolatuko du, hirugarrenez. *Hel horri!* lemapean, maiatzaren 31n ospatuko da Bizkaiko ikastolen jaia. "Datorren urteko Ibilaldia familiagaz zein lagunekin euskaraz ospatzea gura genuke, ikastola eta euskal kultura Euskal Herriko zirrikitu guztietara zabalduz", adierazi zuten Elorrioko Txintxirriko kideek prentsurrekoan.

Elorrioko Txintxirri Ikastolak 1968ko urtarilaren 12an zabaldu zituen ateak. Harrezkero, hainbat egitasmo eta ekimenetan parte hartu dute. Esate baterako, 1999ko eta 2006ko Ibilaldiak antolatu zituen. Eta, orain, elorriarrek beste erronka bat dute esku artean: 2020ko Ibilaldia. Txintxirriko kideek jakitera eman dutenez, hasi dira iada lanean. Esaterako, udaberrian lansaio bat egin zuten ikastolako familiekin, eta han *Hel Horri!* goiburua eta hiru elorriren logoa zehaztu zituzten. "Elorrio eta elorria abiapuntu moduan hartuta



Ezkeretik hasita, Azkue ikastolako kideak, erdian Koldo Tellitu Ikastolen Elkarte presidentea eta Txintxirri ikastolako arduradunak.

sortu dugu lema", esan dute Txintxirri Ikastolako kideek.

Bestalde, 2020ko Ibilaldiaren helburu nagusiak Txintxirriren hezkuntza eredua herriratzea, erronka berriei aurre egiteko bali-

Udaberrian lansaio bat egin zuten ikastolako familiekin, Ibilaldiko lema eta logoa aukeratzeko

bideak eskuratzea eta herriko eragile eta taldeekin harremanak sendotzea dela jakitera eman dute, euskara, parekidetasuna, hezkidetzaz, jasagarritasuna, parte-hartzea eta inklusioa zehar lerro izanda.



Gerediaga elkarteak Dorita Ruiz irakasle ohiari emango dio Teila saria

DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO

Gerediagak Dorita Ruiz irakasle ohiari emango dio aurtengo Teila saria, merinaldetik kanpokoek Durangaldeagaz duten lotura eskertzeko dena. Horren bitartez, Hezkuntza Berezian egindako lana aitortu gura dio.

Burgosen jaioa, Euban bizi da Ruiz. 1967an Hezkuntza Berezian hasi zen lanean, Karrantzan, eta 1975ean etorri zen Durangora. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Bereziko Planaren egituraketan parte hartu zuen, eta 1992ra arte Bilboko Hezkuntza Ordezkaritzan lan egin zuen. Gero, Landako eskolan klaseak ematen jarraitu zuen, 2004an erretiroa hartu zuen arte.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Ekainean zehar, Dendak Bai elkarteak 50 otordu zotz egingo ditu Durango Txartela erabiltzen duten kontsumitzaileen artean. Komertzioetan erosketa egitean, makinatik irteten den tiketean ipiniko du bezeroari saria tokatu zaion ala ez, eta, zortea edukiz gero, Nafarroako Rural Kutxako bulegoan aurkeztu beharko da tiketa. Dendak Baik 25 gosari emango ditu opari Axpen, He-

Makinatik irteten den tiketean ipiniko du bezeroari saria tokatu zaion ala ez

Durango Txartela erabiltzen dutenen artean 50 otordu zotz egingo dituzte

25 gosari eta beste 25 bazkari edo afari eskainiko ditu zozketan Dendak Bai elkarteak

rrian, Lupetzan, Paustan eta Zeron, eta beste 25 bazkari edo afari Akebasen, Gazteluan, Gran Hotel Durangon, Kobikan, Larrinagatxun eta Plateruenean.

Oraindino Durango Txartela eduki ez eta erabiltzaile izan gura dutenek badute aukera eskaria egiteko, Dendak Bairen Askatasun etorbideko egoitzan, elkarte-ko kide diren komertzioetan eta Nafarroako Rural Kutxan. Trukean, abantailak edukiko dituzte.



Zozketan parte hartzeko, Dendak Bai elkarte-ko komertzioetan egin behar dira erosketak.

Gorka Fraile presoak hiru eguneko baimena izan du

DURANGO • M.O.

Gorka Fraile presoak hiru eguneko baimena izan du kalean egoteko. Etxerategi informatu du El Duesoko (Kantabria, Espainia) kartzelako Tratamendu Batzordeak emandako ohiko baimena izan dela. Izan ere, bigarren gradu dago, espetxe horretara abenduan hurbildu zutenetik. Fraileri minbizia topatu zioten 2015ean, eta preso gaixo larrien zerrendan du Jaiki Hadi elkarteak.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko ekainaren 7a
17. urtea - 766. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Bazkalostean Plateruena kanpoan ateratako talde argazkia.

30 urte eginda, Berbarok Durango euskalduntzeko bidean segituko du

Iragana baloratu eta etorkizunera begira ipintzeko eguna izan zen zapatukoa

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Berbarok euskara elkarteak 30 urte egin ditu aurtan, eta joan zen zapatuan egun osoko jaialdi batez ospatu zuten efemeridea. Ez dira bat-batean egiten 30 urte, lan asko dago atzetik; iraganean eginikoa baloratu eta etorkizunera begira ipintzeko eguna izan zen. Eguerdiko bazkarian, euskaltzaleek bete egin zuten Plateruena.

Bazkalostean, Markel Sanchez elkartearen gerentek berba egin zuen. Berbaroren ibilbidean sortutako proiektuen errepasoa egin zuen: Eraz eta ANBOTO, Berbarok

taberna, Plateruena, Haur Literatur Aretoa, euskararen inguruko gazte taldeak, Olgetan proiektua, gazteentzako motibazio tailerrak... Horiek eta gehiago sortu arren, "trabak" ere badirela eta Durango euskalduntzen segitzeko asmoa dutela esan zuen. "Orain 30 urte

Joan zen zapatuan egun osoko jaialdi batez ospatu zuten efemeridea

"Herri mugimendu indartsu eta ilusionatu bat sortzen hastea" beharrezko ikusten dute

moduan, gaur ere bai, orduko ilusio berdinean", Sanchezen esanetan. Jende berria erakartzea ere egongo da helburuen artean. "Berbaroren atzean herri mugimendu indartsu eta ilusionatu bat sortzen hastea" beharrezko ikusten dute.



130 bat lagun batu ziren Platerueneko bazkarian.



Goienkaletik kalejiran heldu ziren antzokira.



Gazteen artean euskara sustatzea da Berbaroren helburuetako bat.

Durangoko herritar zein eragileak euskalgintzari buruzko gogoetan parte hartzera deitu ditu Guka taldeak

'Euskararen aldeko indarrak biderkatuz' jardunaldia bihar izango da, Pinondon, 10:00etan

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durango euskalgintzan diharduten hainbat eragilek sortutako Guka taldeak gogoeta saio batera deitu du biharko. Saioaren hasieran, Jon Sarasuak euskalgintzari buruz

berba egingo du. Helburua Durango euskalgintzaren jardunari buruz eztabaidatzea da. Zein aliantza sortu daitezkeen eta zein dinamika parte-hartzaile ipini behar diren martxan eztabaidatuko

dute. Gogoeta egiteko, euskalgintzan antolatutako kideez gainera, Durangoko herritar euskaltzaleak bertaratzea eta ahalik eta iritzirik gehien jasotzea garrantzitsua dela azpimarratu dute.



Guka taldeak ateratako argazkia.

arizmendi
ikastola **PRO**

Goi eta Erdi mailako Heziketa zikloak

Zure Lanerako Bidea

AURREMATRIKULAZIO EPEA ekainaren 3tik 14ra

→ Kirola

→ Mikroinformatika

→ Erizaintzako
zaintza osagarriak

→ Osasun
larrialdiak

943 77 20 25 • lanbideheziketa@arizmendi.eus

www.arizmendipro.eus

Erreferenduma buruan, sinadura bilketa erraldoi bat egitea proposatu du Gure Eskuk

Herritar, kolektibo, elkarte eta erakundeak inplikaturako dituen "herri erronka" moduan planteatu dute

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Aurrera begira, "jauzi kualitatibo" bat emateko bidea zabaldu leza-keen ekimena proposatu du Gure Eskuk: sinadura bilketa erraldoia. Hile batean kontzentratuko litzateke, 2020ko maiatzaren eta ekainaren bueltan. "Sinadura bilketa hori gura dugun moduan bideratzen badugu, eta amesten ditugun kopuruak lortzen baditugu, sinestuta gaude mugarri garrantzitsua izan daitekeena", adierazi zuen Gure

Josu Etxaburu: "Sinestuta gaude sinadura bilketa mugarri garrantzitsu bat izan daitekeela"

Eskuren bozeramaile Josu Etxaburuk, eguaztenean Durangoko Plateruenean egindako aurkezpenean.

Sinadura bilketa hilabetearen kontzentratzeko ideia Euskaralditik hartu dute. "Euskaraldian, 11 egunean horretan ipinita egon da fokua. Antzerako zerbait lortu gura dugu", azaldu zuen.

Gure Eskutik harago joan behar den "herri erronka" moduan planteatu zuen Etxaburuk, eta, sinadura bilketa heldu aurretik, herririk herri zein maila nazionalen landu beharko dela, ildo guztietako eragileekin. "Saretzen jarraitu behar dugu, orain arte heldu ez garenengana heltzeko. Horretan datza herri ekimen honen arrakasta", esan du.

Erreferenduma buruan

Erakunde publikoei erreferenduma legeztatzeko eskaria egitea



Josu Etxaburu azalpenak ematen eguaztenean Plateruena kafe antzokian egindako aurkezpenean.

da helburua, eskumena dutenek eskaria errealitate bihurtu dezaten. "Erreferendumaren tresna geurenaganatu gura dugu", azaldu zuen Etxaburuk.

Euskal Herri osoa kontuan hartuko duen herri ekimena izatea gura dute, beti ere tokian tokiko errealitateak, hau da, Euskal Autonomia Erkidegokoa, Iparraldekoa eta Nafarroakoa, kontuan hartuta. Lurralde nortasuna "zaindu" beharko dela aurreratu zuen Etxaburuk.

Gure Eskuren bazkide kopurua handitzea "ezinbesteko elementua" da Etxabururen ustez

Gainera, horrelako planteamenduetan, begirada epe luzerakoa izatea "derrigorrezkoa" dela uste du. "Zer gertatuko den eta noiz jakitea ez da erraza. Jokoan sartzen

diren hainbat aldagai daude", abisatu zuen aurkezpenean.

Bazkide kanpaina

Gure Eskuk kanpaina berri bat abiatu du bazkide kopurua handitzeko. Hori "ezinbesteko elementua" dela uste du Etxaburuk, ekonomikoki malgutasuna lortzeko zein beste eragileek "muskulu sendoagoagaz" aurrera bideratzeko. Horretarako, www.gureesku.eus webgunean dago aukera.

DAFAk jarrera kritikoa agertu du eraso sexisten aurkako botoiaz

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Eraso sexistei aurre egiteko, GPSdun botoi bat eskaintzen hasi da udala. Botoiari sakatuz gero, udaltzainak agertuko dira emakumea dagoen lekura. Bada, Durangoko Autodefentsa Feministarako Asanbladak (DAFA) jarrera kritikoa agertu du. "Noiz ipiniko da fokua erasotzaileengan? Zer behar dugu emakumeok babestuta sentitzeko?", galdetu dute oharrean. "Paradoxikoki, botoia aurkeztu zuten astean, herriko emakume bati eraso egin zion bere mutil-lagunak. Bere etxean, bere ohean. Badirudi erasotzaileak ez direla soilik toki ilunetan edo

"Noiz ipiniko da fokua erasotzaileengan? Zer behar dugu emakumeok babestuta sentitzeko?"

mendian agertzen diren ezezagunak", adierazi dute.

Neurriek dakarten mezuaz zalantza dute. "Emakumeok zaugarriak eta biktima potentzialak garen iruditeria elikatzen duten neurriek ez digute balio. Kontrol mekanismoek ez gaituzte sekula ere babestuko". Kontrara, "neurriak errotik" hartzea eta salatzerakoan "tratu ona" jasotzea eskatu dute.

Bestalde, DAFako kideen esanetan, Neberondoko azken erasoa gertatu zenean gutun bat bidali zuten udalera, neurriak eskatzeko, eta oraindino ez dute erantzunik jaso.

www.uni.eus
idazkaritza@uni.eus
Tel.: 943 208 444

IES **UNI** BHI

www.facebook.com/iesunibhi
[uni.eus](https://www.instagram.com/uni.eus)

HEZIKETA ZIKLOEN AURREMATRIKULA Ekainaren 3tik 14ra

HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK

- HEZIKETA FISIKO
- INFORMATIKA
- MARKETING ETA MERKATARITZA
- ADMINISTRATZIOA

+ PROIEKTUAK

- PRAKTIKAK ATZERRIAN
- HEZIBI - LANBIDE HEZIKETA ALTERNANTZIAN
- IKASKUNTZA ESZENATOKIAK
- OSASUNARENTZAKO PROGRAMA
- ENPRESA BIRTUALA
- UNI ENCOUNTER
- URRATS BAT





Iaz, Inun musikari zornotzarrak parte hartu zuen azokan.



Asier Isasik eta Andikona Irazabalek Berriztu azokan parte hartuko dute.

Erabiltzen ez diren produktuei bigarren aukera bat emango diete Berrizko Berriztu azokan, domekan

Ekainaren 9an, musikaz eta arteaz gozatzeko aukera egongo da udaletxeko parkean, MR. Sor 2 grafitigilearen eta Ainoa Buitrago musikari madrildarraren eskutik

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bigarren eskuko Berriztu azokaren zarpigarren edizioa egingo dute domekan. 11:00etatik 15:00etara bitartean izango da, udaletxeko parkean.

Andikona Irazabal eta Asier Isasi berriztarrek postua jarriko dute eta herritarrei gonbita egin diete merkatura joateko. "Oso giro polita egoten da, domeka desberdin bat izaten da eta. Gainera, musikaz,

arteaz eta beste kontsumo eredu batez gozatzeko aukera paregabea egoten da", adierazi du Andikona Irazabalek.

Ez da lehenengo aldia Irazabalek eta Isasik Berrizko bigarren esku-

ko azokan postua jartzen dutena. Irazabalek hiru bider atera ditu bere produktuak kalera, eta Isasik zarpigarren aldia izango du aurten-go. "Etxean hainbat traste ditugu, eta azoka hau aproposa izaten da gauzak aldatu, saldu eta trukatzeko", esan du Asier Isasik. Gainera, Berriztuk beste kontsumo eredu baten alde egiteko aukera aproposa

eskaintzen duela adierazi dute berriztar biek. "Etxean hainbat gauza ditugu erabiltzen ez ditugunak, eta, azoka hauei eskerrak, beste pertsona batzuek erabili ditzakete guk alde batera utzitakoak. Horrek, gainera, zabor gutxiago sortzera eramango gaitu", gaineratu du Irazabalek.

Berriztu azokan, bigarren eskuko produktuak aurkitzeaz gainera, bertaratzen denak musikaz eta arteaz gozatzeko aukera ere izango du. Aurten, esaterako MR. Sor 2 grafitigilea eta Ainoa Buitrago musikari madrildarra arituko dira.

lanerako gertu!

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

2019-2020

» Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Izen-ematea

Ekainaren 3tik 14ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
•Administrazioa eta Finantzak •Zuzendaritza Idazkaritza •Salmenta Kudeaketa	•Automatizazioa eta Robotika Industrial •Sareko Informatika Sistemen Administrazioa •Fabrikazio Mekanikoko Diseinua •Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa •Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Joan zen asteburuan Donostian egindako agerraldia.

Lopez de Lacalle eta 46 auziperatuak babesteko, manifestazioa egingo dute

Auziperatuek deialdia egin dute irailaren 14rako, epaiketa hasten den bezperarako

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Presoen alde lan egiteagatik auziperatuta dauden 47 euskal herritarrek agerraldia egin zuten joan zen asteburuan, euren egoeraren berri emateko eta irailean Bilbon antolatuko den manifestaziora deitzeko. 47 auziperatuen artean, Egoitz Lopez de Lacalle otxandiarra dago. Manifestazioa irailaren 14an izango dela adierazi zuten, epaiketa hasten den egunaren bezperan, hain zuzen ere. "Manifestazio hau handia eta askok babestutakoa izan dadin, eremu askotako lagunekin manifestu zabal bat lan-

Eremu askotako lagunekin "manifestu zabal bat" lantzen ari direla adierazi dute

Kontu korrante zenbaki bat zabaldu dute babes ekonomikoa azaldu gura duten herritarrei begira

tzen ari gara", adierazi zuten, Donostian, auziperatu guztiek elkarregaz egindako agerraldian. Era berean, makroepaiketaz "asaldatu" diren herritarrei dei egiten diete manifestazioan parte hartzeko. "Kalean eta jendeagaz erantzun gura diogu epaiketari", adierazi zuten.

Horrez gainera, kontu korrante zenbaki bat zabaldu dute babes ekonomikoa azaldu gura duten herritarrei begira. Azkenik, epaiketaren gaineko informazioa interneteko www.11-13makroepaiketa.eus gunean jaso daitekeela gogoratu zuten.

Jan Alai lehiaketako pintxo irabazleak zeresana eman du

Ancora tabernak aurkeztutakoa bere pintxo baten kopia dela salatu du Madrilgo jatetxe batek; udalak saria ez erretiratzea erabaki du, oinarriak betetzen dituelako

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Ancora tabernak Jan Alai lehiaketako pintxorik berritzaileenaren saria jaso zuen joan zen domekako sari banaketan. Asteazken, pintxo hori eta pintxoaren izena, *Gilda 2.0*, euren pintxo baten plagioa dela salatu du Madrilgo Arima jatetxeak sare sozialetan bitartez. Gaiak zeresana eman duela ikusita, udalak egoera aztertu du. Ancora tabernak lehiaketako oinarriak bete dituen ala ez aztertzer mugatu dira. Oinarriak bete dituela deliberatu dute, eta, ondorioz, ez diote saria erretiratu,

Zornotzako Udaleko iturriek ANBOTOrri azaldu diotenez.

Ancora jatetxeko Cesar Antonio Castellanosok adierazi du ez dela nahita egindakoa izan. "Ez nuen Madrilgo pintxoaren inongo berririk", esan du. Pintxo biek izen bera izatea kasualitatea dela dio. "Formakuntzaz informatikaria naizenez, *Gilda 2.0* izena ipintzea okurritu zitzaidan", esan du.

Jan Alai lehiaketak beste sari biren banatu ditu. Herritaren saria Uranga jatetxeak irabazi du eta zerbitzaririk profesionalenarena Leku Berri jatetxeko Kontxi Gisasolak.



Joan zen domekan egin zuten sari banaketa ekitaldia, Zelaieta Zentroan.

Bertsolariak eta harri-jasotze erakustaldia Gereaa auzoko jaietan

Gaurtik domekara, San Adrian jaiak ospatuko dituzte

MALLABIA • J.D.

Gaur arratsaldean Donien Atxa jaso eta San Adrian jaietan murgilduko dira Mallabiko Gereaa auzoan, asteburu osoan zehar. Zapatuan,

16:00etan, umeen jolasak izango dira lehenengo, eta, gero, briska txapelketa hasiko da. Bikote irabazleak 100 euroko saria jasoko du. Bigarren, hiru garren eta laugarren

sailkatuentzat ere egongo dira sariak. Domekan, San Adrian Egunean, Gazte Alai dantza taldeak saioa eskainiko du, 11:00etako meza ostean. Jarraian, Rikardo Gonzalez de Durana eta Felipe Zelaieta bertsolarien saioa hasiko da. Harri-jasotze erakustaldi bat ere egongo da ikusgai Zelai Varen eta Uretaren artean. Azkenik, asto probekin emango diete amaiera aurtengo jaiak.

Santa Ageda egunean txosna ipintzeko eskaera egin daiteke

IZURTZA • J.D.

Izurtzako jaietako egun handietariko bat Santa Ageda ermitaren inguruan antolatzen dute. Aurten, irailaren 1eko domekan izango da. Ermitaren inguruan taberna bat ipintzeko lehiaketa abiatzen du udalak urtero, eta aurtengoa

ere martxan da. Interesatuta daudenak ekainaren 14a baino lehen ipini behar dira hartu-emanetan udalagaz.

Iaz, Durangaldeko Angelman Sindromea elkarte bakoitzak ez zen aurkeztu, eta udalak euren eman zien taberna ipintzeko aukera.

afede_k
zozkatzen dituen
150€-ko 2 bonoren zozketan
parte hartu www.anboto.org webgunean

ELORRIOKO UDAKO IGERILEKUAK
Ekainaren 10etik Irailaren 15era arte
www.elorrio.eus



Perosanzek irabazi du Zaldibarko jaietako kartel lehiaketa

ZALDIBAR • A.M.

Lorea Perosanz ermuarraren proposamenak irabazi du Zaldibarko jaietako kartel lehiaketa. Bigarren postua Iker Villanueva zaldibartarrarentzat izan da. Kultur Saileko Jabier Vidalen berbetan, aurtengo lehiaketara ez dira gura beste proposamen heldu eta, hori dela-eta, aurrera begira beste formatu batean egin gura dute.

27 umek parte hartuko dute Garaiko Udalak eskainitako udalekuetan

GARAI • MARKEL ONAINDIA

27 umek parte hartuko dute udalak aurtengo eskainitako udalekuetan. Ume horietatik, 13 dira herrikoak, eta besteak, ingurukoak. Udalekuen zerbitzua Berbaro elkarteak emango du, udal iturriek azaldu dutenez.

Goizean egingo dituzte ekintzak; irteera egunean eta azken egunean, baita arratsaldean ere

Uztailaren 1ean hasiko dira udalekuak, eta 19ra arte iraungo dute. Goizean egingo dituzte ekintzak, eta irteera egunean eta azken egunean baita arratsaldean ere.

Hemendik Harantz elkarteak antolatuta, zapatuan elkartasun jaialdia ospatuko dute Elorrion

Mugak zabaldu eta elkartasuna sustatzeko asmoz, Hemendik Harantz Durangaldea elkarteak sortu berri dute eskualdean; bihar, sostengu ekonomikoa lortu eta herritarrek kontzientziatzeko egun osoko jai bat egingo dute Elorrion

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2016an, hainbat herri mugimenduren eskutik, Arabako Errioxan Hemendik Harantz elkarteak jaio zen, errefuxiatuentzat janaria eta arropa jaso eta haien ahotsa izateko asmoz. Eta, orain hile batzuk, Durangaldeko hainbat kidek Hemendik Harantz Durangaldea elkarteak sortu zuten, mugak zabaldu eta elkartasuna sustatzeko. "Pare bat lagun hartu-emanen ipini ginen

bait egitea proposatu genien", esan du Iker Salterain abadiñarrak.

Orain lau bat hiletik hona, janari bilketak egin dituzte hainbat herritan, eta zapatuan elkartasun jaialdia egingo dute Elorrion sos-

tengu ekonomikoa lortzeko. "Jaialdia dirua biltzeko da, batez ere. Hala ere, kontzientziazio kanpaina bat ere egin gura dugu, jendeari Europan bizi duten egoeraren berri emateko", azaldu du Salterainek.

Bestalde, euren asmoa eskualdean erreferente bihurtzea dela aitortu du Salterainek. "Berrizena lokal bat daukagu eta gure asmoa arropa bilketan erreferente izatea da", gaineratu du abadiñarrak.

Arropa bilketan eskualdean erreferente bihurtzea da Hemendik Harantz-ekoen asmoa



Orain lau bat hile sortu zuten elkarteak.

hainbat kolektibogaz, proiektuak ezagutu eta eskualdean zerbait egiteko", azaldu dute. Baina ikusi genuenak ez gintuen guztiz asetu, akzio gehiago gura genuelako, eta, orduan, Arabako Errioxako talde hau ezagutu eta elkarlanean zer-

Elorrioko institutuko gazteek Zumelegi erreka garbitu dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Klima aldaketa geldiarazteko asmoz, Elorrioko institutuko kideek bat egin dute Greta Thunberg aktibista suediarrek abiatutako ekimenagaz. Etorkizun jasangarri bat izateko asmoz,

bigarren hezkuntzako hainbat ikaslek *Friday for future* ekimena ipini dute martxan, eta hainbat ekimen egin dituzte. Besteak beste, Zumelegi erreka garbitu eta herriko plazan elkarretartzea egin dute.



Gazteek 'Fridays for future' ekimenagaz bat egin dute.

Hamadako Izarrak sukaldean laguntzeko boluntario bila dabil

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hamadako Izarrak elkarteari eskerrak, hainbat ume saharar Axpeko aterpetxean egongo dira uda sasoian. San Juan jaian bueltan helduko dira Axpeko aterpetxera, eta hile bian egongo dira han.

Hamadako Izarrak elkarteak kideak astebetean sukaldean laguntzeko prest dauden boluntario bila dabil. Elkarteko kideek esan dutenez, interesa dutenek hamadakoi-zarrak@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

Putzu septikoak egin edo berritzeko, diru-laguntzak eskatu daitezke udaletxean

MAÑARIA • J.D.

Udalak diru-laguntzak emango ditu putzu septikoak zaharkituta dituzten bizilekuetan eurak berritzeko, edo bat ere ez dutenetan berriak egiteko. Dagoneko hasi dute eskaerak egiteko epea, eta ekainaren 28ra arte egongo da zabalik.

Aurkeztu beharreko dokumentazioaren gaineko informazioa eta bete beharreko eskaera orria udaleko webgunean daude eskuragarri.

Udako euskara ikastaroak eta barnetegiak 2019

aek

udan, arinago

DURANGALDEKO AEK

IKASTARO TRINKOAK UZTAILEAN

durangaldekoaek@aek.eus

662 966 827

EUSKALTEGIAK
ONLINE-IKASTAROAK ERE BAI!

2 ASTEKO BARNETEGIAK

FAMILIA BARNETEGIAK

BARNETEGI IBILTARIAK

673 200 100 · 946 464 000

www.aek.eus



EH Bilduk neurriak hartzeko eskatu du, N-634an istripu gehiago ez egoteko

IURRETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken asteotan, Iurretan lanak egiten dabilta N-634 errepide nagusia zeharkale bihurtzeko, eta EH Bilduko kideek ohar bitartez jakinarazi dutenez, lan horiek trafiko arazoak sortzeaz gainera "hainbat istripu" eragin dituzte. "Errepidea estuagoa da

N-634an egiten dabilta lanak "hainbat istripu" eragin dituztela salatu dute EH Bildukoek

orain, eta horrek askoz ere arriskutsuago bihurtu du txirrindularien ibilera", esan dute.

Hori horrela, eta istripuak saihesteko asmoz, EH Bilduko kideek ahalik eta azkarren beharrezko neurriak hartzeko eskatu diote udalari. "Gutxienez txirrindulariak ohartaraztea eskatzen diogu udalari, ibilbide arriskutsu hau saihestu dezaten", adierazi dute.

Herriko hainbat elkarte eta kolektibok kultur aniztasunaren aldeko jaialdia antolatu dute elkarlanean

Ekainaren 15erako, egun osoko egitaraua osatu dute eta hainbat herrialdetako arroza probatzeko aukera egongo da

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Herriko hainbat elkarte eta kolektibok kultur aniztasunaren aldeko astea prestatu dute Iurretan, elkarlanean. Axoura (Maroko), Biladi (Palestina) eta Fasoden (Senegal) elkarteek, Ghanako eta Maliko komunitateek, La Otra Mirada GKEK, Mikel Deuna dantza taldeak, HEKI herri kirolen elkarteak eta udalak parte hartu dute astelehenean abiatuko den egitarauaren prestaketan. Azaldu dutenez, jaialdiak herriarren arteko hartu-emanak sen-

Asteazken zehar, 'A cielo abierto' liburua eta 'Gaza' dokumentala aurkeztuko dituzte, besteak beste

dotzeko balio dezake, eta parte hartzera deitu dute

Pilar Salamancak *A cielo Abierto* liburua aurkeztuko du ekainaren 10ean, 19:00etan, kultur



Toki anitzetako elkarte eta kolektibok egin dute egitarauaren aurkezpenean, Ibarretxe kultur etxean.

etxean. Ekainaren 11n, leku eta ordu berean, *Gaza* dokumentala emango dute. Gero, Anis Hawari palestinarrek bere herrialdearen egoerari buruzko berbaldia eskainiko du.

Ekainaren 15ean, egun osoko jaia hasiko da Askondon, 11:00etan. Tea hartzeko aukera ere egongo da, eta umeentzako tailerrak. Bazkaritarako, herrialde bakoitzeko arrozak pres-

tatuko dituzte. Txartelak euro bati hartu daitezke, ekainaren 11 baino lehen. Batutako dirua La Otra Miradak Sare Biraun herrian (Senegal) amaetxea egiteko erabiliko da.

Abadiñoko elkartasun maratoian, irri baten truke eragingo diete pedalei

Zapaturako eta domekarako egitarau oparoa prestatu dute, haur minbiziaren aurkako ikerketarako dirua biltzeko

ABADIÑO • A.M.

Hirugarren urtez, gimnasio erraldoi bilakatuko da Abadiñoko Traña plaza, spinning bizikletez lepo. Txirrindulari bakoitzak 5 euro emango ditu orduko, haur minbiziaren aurkako ikerketarako. Domekan, 09:30-14:30 bitartean eragingo diete pedalei. Elkartasun eki-

men honek hirugarren urtea du eta herrian erroturik dago jada.

Spinning maratoiaz gainera, kontzertuak, bigarren eskuko merkatu solidarioa eta umeentzako jolasak egongo dira zapatu arratsaldetik hasita. Ekitaldietan batuko den dirua Biocruces Osasun Ikerketa Institutuak jasoko du.

Proiektuak aurkeztea "zailtzea" leporatu dio Katalamixonek Abadiñoko Udalari

Udalekuetarako proposamena atzera bota dietela jakinarazi du ohar baten bitartez



ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko Katalamixon aisialdi elkarteak, ohar baten bitartez,

udalekuetarako proposamenak aurkeztea "zailtzea" egotzi dio Abadiñoko Udalari. "Plegu bi atera

zitzakeen, kaudimen ekonomikoa eskatu behar ez izateko", esan dute. Izan ere, udalak 35.000 euroko kaudimena eskatzen du udaleku proiektuak aurkezteko.

Udaleko udalekuetako pleguen zain igarotako denboragatik ere kexatu da Katalamixon taldea. "Maiatzaren 14an argitaratu ziren, udalekuetarako hile eta erdi falta zela", azaldu dute. Hala ere, azken hiru urteetan bezala aisialdian jarraituko dutela adierazi dute.

Atxondoko Udal Igerilekua



2019 DENBORALDIA
Ekainaren 15etik
irailaren 1era
(biak barne).

Ordutegia:
11:00-20:00

SARRERA

• 4 urtera arteko umeak
debalde
• 5-17 urte bitartekoak
3,50€

www.atxondo.eus



merkataritza gida sarean anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(bortan 50€)



Ricardo Doliwa

Hareek denporak!

Orain 70 urteko Sanantonio jaiak Ezkurdi pilotalekuan

Urkiolan jai handia ospatuko dute datorren egunean, San Antoniori omen egiteko. Urkiolako jaia da ezaguna gure artean, baina iraganean Durangon ere egiten zituzten ospakizunak. Horietako bat da argazkikoa, 1949koa, Ricardo Doliwak ateratakoa eta Jose Mari Uriarte historialariak utzitakoa. Irudiko boxeo lehia ekainaren 14koa da.

Udal artxiboan gordeta dagoen egitarauak dio lau borro-

kaldi egon zirela; Beraza eta Diaz Bizkaiko txapeldunak, Tavirako Martinez Otxoa, Accion Deportivako Rodriguez, Artetxe lemoarra, Palacio de los Deporteseko Perez Palma, Ruiz Vallejo eta Accion Deportivako Guerra izan ziren borrokalariak.

Egun bererako, banda militarren kontzertua, txirrindularitza proba eta pilota partiduak zeuden iragarrita. Ekainaren 16an jarraitu zuen jaiak, udal bandaren emanaldiagaz. **M.O.**

Durangaldea asteen

Aldundiak udalaren esku utzi du Zelaietatik Atxondoko mugaraino doan errepidea

Abadiño I Hitzarmen baten bitartez, Zelaietatik hasi eta Atxondoko mugaraino doan errepide zatia Abadiño Udalaren esku gelditu da. Prentsa oharrean azaldu duenez, Abadiño Udalak hainbat hobekuntza egiteko asmoa du errepide zati horretan, dagoeneko onartuta daukan 1,2 milioi euroko proiektu batez. BI-3336 foru errepidearen 2.250 metroko tarte horretan, udalak biribilgune bat egin gura du Muntzaratzeko sarreran.

Zornotzako erakusketak argazkien bitartez jasotzen du pentsiodunen mugimendua

Zornotza I 2018ko urtarrilean elkartzen hasi zirenetik gaur egunera arteko ibilbidea errepasatzen du Zornotzako pentsiodunen mugimenduak antolatutako erakusketak. 70 bat argazki batu dituzte, euretariko hainbat Zornotzakoak. Durangaldeko beste herri batzuetakoak ere badaude tartean. Erakusketa Zelaieta Zentroan dago ikusgai, ekainaren 15era arte.

Zabalik dago Durangoko udal euskaltegiko udako ikastaroetan izena emateko epea

Durango I Astelehenaz geroztik, Durangoko udal euskaltegiko udako ikastaroetan izena emateko aukera dago. Matrikulaldia ekainaren 21era arte egongo da zabalik. Asteleheneetik egunera goizean zein arratsaldean egin ahal izango da, eta, barikuetan, 10:00etatik 13:00etara.



Zaldibarren ipini dituzten ur txorroak erabilgarri egongo dira gaurtik

Zaldibar I Zaldibarko Udalak zazpi ur txorro ipini ditu Olazarreko futbol zelai zaharrean. “2019ko aurrekontu proposamenean proiektu garrantzitsua izan zen txorroak ipintzearena, eta aisialdi eskaintza zabaldu eta Olazarreko gunea hobetzeko asmoagaz egin dugu”, adierazi du Eneritz Azpitarte jarduneko alkateak.

Bestalde, ur txorroak 10:00etatik 22:00etara erabili ahal izango direla eta ordutegi horretan futbol zelaiko aldageletako komunak ere zabalik egongo direla jakitera eman dute. Horrez gainera, ur txorroetan ibiltzeko, oinak babestuta eduki behar direla jakinarazi dute Zaldibarko Udaleko kideek ohar baten bitartez.


Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).




Beldar goSetia

Zenbat hosto jango ditu beldarrak bere kuskuan sartu aurretik? Horixe jakin nahi baduzu, beldarra dagoen tokitik abiatu eta, hostoz hosto, kuskuraino heldu behar duzu, ezkerrera, eskuinera, gora edo behera mugituz (sekula ez, diagonalean).



Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.



Basoan galduta

- 1 Zenbat otso ikusten dituzu?
- 2 Eta zenbat untxi?
- 3 Ba al da sugerik? Zenbat?
- 4 Ba al da trikurik? Zenbat?
- 5 Ba al da txoririk? Zenbat?
- 6 Ba al da arratoirik? Zenbat?
- 7 Eta azeririk?



www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)



zazpiKoa

Aurki itzazu bi irudi
hauen artean dauden
zazpi diferentziak.



IRUDI ENGAINARIak

Eskuinean dituzun burbuila edo borobiltxo horiek beheko irudi nagusitik hartuak ematen dute, baina egia esanda, bederatzitik bakar bat duzu zuzena. Zein da?



alboan
Psikomotrizitate gunea

Uztailean Psikomotrizitate saioak Atxondoko ALBOAN Psikogunean (0-9 urte)

Astearteak

10:30 - 11:30 (2-3 urte)
11:45 - 12:45 (4-5 urte)

Asteazkenak

10:30 - 11:30 (5-6 urte)
11:45 - 12:45 (6-7 urte)

Ostegunak

10:30 - 11:30 (7-8 urte)
11:45 - 12:45 (8-9 urte)

Ostiralak

10:30 - 11:30 (0-1 urte, gurasoekin)
11:45 - 12:45 (1-2 urte, gurasoekin)

Saioko 15€ | Plaza mugatuak: talde txikiak | Izena emateko azken eguna: ekainaren 24a | 688 774 295 | alboan.psikogunea@gmail.com



Gari & Maldanbera

KONTZERTUA

DURANGO :: Ekainak 7

'Beste denbora batean' diskoaren aurkezpena

Hertzainak taldeko abeslari ohiak 'Beste denbora batean' diskoa aurkeztuko du, gaur, Plateruenean, Maldanbera taldearen laguntzagaz. Abenduan aurkeztu zuen Garik lan hau, bakarka daraman ibilbidean hamargarrena, hain zuzen ere. Kontzertua 22:00etan hasiko da eta EraBatera taldeak ere joko du.

Ekainaren 7an

ABADIÑO musika

Irene Zugaza, 22:30ean, Bedats tabernan.

BERRIZ musika

Bart... Sax!, 19:30ean, Kultur Etxean. 13 soinu banden zapping musikala.

BERRIZ koplak

Durungaldeko XVI. Kopia Txapelketa, 22:00etan, Hiltegixe gaztetxean.

DURANGO euskal jaiak

Eskolarteko esku pilota txapelketa eta nesken pala txapelketa, 18:00etan, Ezkurdi Jai Alain eta San Faustoko frontoian. X. Peter Memorialaren finalerdiak, 19:15ean, Ezkurdi Jai Alain.

ELORRIO saioa

Tuppersex-a eta ipuin erotikoak, 17:30etik 20:30era, Iturri kultur etxean. Inma Merinok eta Virginia Imazek gidatuta, 18-26 urtera arteko emakumeentzat.

ZORNOTZA antzerkia

'Repollo de Mierdra' (Urgotxu), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Ekainaren 8an

DURANGO euskal jaiak

Kalejira eta dantzariak, 12:00etan: Jai Zale txistulari elkarteak, musika eskolako txistulariak, eta Txoritxu Alai, Tronperri eta Kriskitin. XVIII. Zesta Punta Txapelketa, Ezkurdi Jai Alain, 18:00etan (finalerdiak). 'Emociones' txistu eta flamenko fusioa, 20:00etan, San Agustin kulturunean.

DURANGO jardunaldia

'Euskararen aldeko indarrak biderkatuz' jardunaldia GUKAK antolatuta, Pinondon. Ongietorria, 10:00etan. 'Euskal Herriko euskalgintzaren ibilbidea, egoera eta egungo erronkak' (Jon Sarasua), 10:25ean. Euskal Herriko esperientziak world-kafean, 11:00etan. Taldeko dinamika, 12:00etan. Ondorioak eta amaiera, 13:45ean.

DURANGO behaketa

Behaketa astronomikoa, 22:30ean, Zuhatzola parkean. Izarra elkarteak.

ELORRIO

elkartasun jaialdia

Mahai-ingurua: Salvamento Maritimo Humanitario (SMH) + Atxondo Harrera Herria + No Name Kitchen + Artea proiektua + Hemendik Harantz. Gaztetxean, 11:00etan. 'Ongi etorri' umeentzako sormen txokoa (6-12), Iturri kultur etxean. Oroimen murala, 18:00etan, gaztetxean. Kontzertua: Sara Zozaya + Abereh + Aiora eta Piti (Zea Mays), 19:00etan. Elkartasun afari merienda, 20:30ean. Kontzertua: Sermonds + Radio Revolucion, 22:00etan. Selektah 9MM-k musika ipiniko du egun osoan. Durungaldeko Hemendik Harantz elkarteak antolatuta.

Ekainaren 9an

DURANGO euskal jaiak

Julene Azpeitia lehiaketako sariak 12:00etan, Plateruenean. 'Flamenko Etxea' ikuskizuna, 19:00etan, Andra Marian: Tabira Musika Banda, Gorka Hermosa (akordeoia), Jose Luis Monton (gitarra) eta Maria Berasarte (ahotsa).

MALLABIA kirola

Gimnastika erritmikoa, 17:30ean, frontoian.

Ekainaren 10ean

IURRETA aurkezpena

Kultur aniztasunaren astea: 'A cielo abierto' liburua (Pilar Salamanca) 19:00etan, kultur etxean. Ondoren, tea eta pastak.


Ekainaren 11n

DURANGO euskal jaiak

Berbaldia: 'Anbotoren begiradapean. Nola heldu ginen baskoiak izatera'. Hizlaria: Sabin Goikolea (ekonomialaria, Gerediagako presidente ohia), 18:00etan, Arte eta Historia Museoan.

IURRETA dokumentala

Kultur aniztasunaren astea: Palestina. 'Gaza' dokumentala, 19:00etan, kultur etxean. Berbaldia: 'Palestina: La verdadera historia contada por un palestino' Hizlaria: Anis Hawari. Tea eta pastak.



Bertso saioa

BERTSOAK
IURRETA : Ekainak 8

'Plazaratu' ekimenak bertso jaialdia antolatu du biharko, Iurretan. Unai Iturriaga, Nerea Ibarzabal, Julio Soto eta Oihana Bartra arituko dira, 19:00etan hasita. Eneko Abasolo 'Abarkas' izango dute gai-jartzaile lanetan.

Zinema aire librean Gerediagan

ZINEMA • Zinema aire librean eskainiko dute bihar, Gerediagako foru zelaian. 18:00etan, Jose Julian Bakedanoren ‘Oraingoz izen gabe’ (1986) eskainiko dute, eta, 20:00etan, Paul Urkijoren ‘Errementari’ (2018). Merinaldearen historian garrantzia duen lekua eza gutzera eman eta hara joateko aitzakia eman gura izan du Gerediaga elkarteak.



Ekainak 19 · 19:00etan
IRAULTZAREN HAZIAK
Ikus-entzunezkoa



Ekainak 28 · 22:00etan
PARABELLUM + PURO CHILE
Kontzaertua

www.plateruena.eus



PLATERUENA
Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatetxea@plateruena.net



Mekoletako jaietan Kokein taldeak joko du

JAIK I Otxandioko Mekoleta auzoan jai giroan sartuko dira gaur, San Bernabe jaiak aitzakia hartuta. Jai Batzordeak denetarikotik ekintzez osatutako jai egitaraua prestatu du.

Ekainak 7

Txupinaren ondoren afari herrikoia, 21:00etan.

Kontzertua: Konpost + Kokein, 23:30ean. Ondoren, **Dj Tibe.**

Ekainak 8

Urduri dantza taldea, 17:30ean.
Kontukabi (musika eta istorioak), 18:30ean.

Kontzertua: D'Capricho, 19:30ean.

Herri afaria, 21:30ean. Ondoren, bertsolariak: **Eneko Abasolo ‘Abarkas’, Beñat Ugartetxea, Unai Iturriaga, Aitor Esteban eta Igor Elortza.** Trikitiagaz **Xabi Aburruzaga eta Joseba.**

Ekainak 11

San Bernabera igoera, 09:00etan. **Meza eta luntxa,** 11:00etan.

Briska eta mus txapelketa, 17:30ean.

Ekainaren 12an

DURANGO hitzaldia
‘Prostituzioa eta pornografia: sexu biolentzia komertziala’. Hizlaria: **Amelia Tiganus (aktibista feminista eta Feminicio.net-eko kidea).** Plateruena kafe antzokian, 19:00etan.

Ekainaren 13an

DURANGO euskal jaiak
‘Aralar, mundua leku den lurra’ dokumentala, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO musika
Serrulla, 20:00etan, Intxaurre herriko tabernan.

DURANGO musika
Elkartasun kontzertua, 20:00etan, Zugaza Zineman. Sarrera, 5 euro. Batutakoa Rio de Oro elkartearentzat.

MALLABIA film laburrak
‘Menditour’ jaialdiko film laburrak, 19:00etan, Kontzejuzarrean.

Ekainaren 14an

DURANGO euskal jaiak
Eskolarteko esku pilota txapelketa eta nesken pala txapelketa, 18:00etan, Ezkurdi Jai Alai eta San Faustoko frontoian.
Kalejira, 19:00etan: alboka, txalaparta, trikiti eta pandero eskolak, eta Sugarri fanfarrea.



Xilipurdi antzerki taldeak ‘Salam’ antzezlan eskainiko du lurretako Askondon, ekainaren 13an, 18:30ean

MALLABIA antzerkia
‘Erradikalak gara’ ikuskizuna, 19:00etan, Kontzejuzarrean.

IURRETA antzerkia
‘Aukerak’ (Funes Troup), 18:30ean, Askondon.
‘Echos’ (Colectivo Eflircoa), 19:30ean.
‘Al otro lado’ (Zuangoango teatro), 20:00etan, Dantzarin.

Ekainaren 15ean

ABADIÑO jaia
Abadoñoako Gaztiek! egitarauaren azken jaia: patinak. 12:00etatik 15:00etara, Matienako kioskoko plazan. Izena emateko azken eguna: ekainaren 7a.

ELORRIO berbaldia
Argazkigintzari buruzko berbaldia Iñaki Izquierdogaz, 16:30ean, Iturri kultur etxean. Lekua mugatua da eta izena eman behar da.

Zine- ma

:: Durango ZUGAZA

• **X-Men: Fenix Oscura**
barikua 7: 19:30/22:00
zapateria 8: 17:00/19:30/22:30
domeka 9: 16:45/19:00/20:30
astelehena 10: 18:30/21:00
martitzena 11: 20:00
eguzatena 12: 20:00

• **El vendedor de tabaco**
barikua 7: 19:30/22:00
zapateria 8: 19:30/22:30
domeka 9: 19:00/21:15
astelehena 10: 18:30/21:00
martitzena 11: 20:00
eguzatena 12: 20:00

• **La viuda**
barikua 7: 22:00
zapateria 8: 20:30/22:30
domeka 9: 21:15
astelehena 10: 18:30/21:00
martitzena 11: 20:00
eguzatena 12: 20:00

• **Mr Link. el origen perdido**
barikua 7: 19:30
zapateria 8: 16:30 (euskaraz) /18:30
domeka 9: 16:30 (euskaraz) /18:30

:: Zornotza ARETOA

• **La viuda**
zapateria 8: 19:30/22:00
domeka 9: 20:00
astelehena 10: 20:15
• **Mr Link. el origen perdido**
zapateria 8: 17:00
domeka 9: 17:00

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Rakel Duran elorriarrak Hald mundu paraleloa aurkeztu zuen izen bereko lehenengo eleberrian; Naia eta Jake ziren hango protagonistak. 'Noul' da eleberri horren jarraipena, eta, besteak beste, Noulak nortzuk diren azalduko du bertan, protagonista bien arteko hartu-emanen sakonduta. Barikuan, tetralogia bat izango denaren bigarren alea aurkeztuko dute Elorrioko Lourdesko Ama ikastetxean, 19:00etan. Han erosi ahalko da liburua, eta baita Durangaldeko liburutegia batzuetan eta Amazon saltokian ere.

Zein da 'Noul' eleberriaren abiapuntua?

Bigarren liburu honetan, gauzak asko zailtzen zaizkie pertsonaiei. Halden amaierak erantzunik bako galdera asko utzi zituen. Noulen, dena aldatuko duen iragana ezagutuko da. Ezer ez da dirudiena.

“Eskuizkribua zena eleberri bilakatu da, eta laster Amazonera helduko da


Noul liburu ilunagoa da. Jake ausartegia bilakatzen da, eta, ondorioz, arazo asko edukiko ditu. Josteil hiri lasaian ere gauza asko gertatu dira eta hiritarrak beldur izango dira. Jakek bere arreba Sarah eta Broke babesten saiatuko da, baina ez ditu beti erabaki egokiak hartuko. Bere inguruan jende asko hilko da, umeak desagertuko dira, eta istripu tragiko ugari gertatuko dira. Bestalde, Naia jakitun da bere bizia arriskuan dagoela, baina ez du Jakerena arriskuan ipini gura; bien arteko harremana korapilatsua izango da, baina Jakek ez du etsiko.

Nola kaleratu duzu liburua?

Diseinu grafikoa eta multimedia ikasketak egin nituen Bilbon, baita prentsa infografismoa ere; praktikak argitaletxe batean egin nituen. Hald publikatzera animatu nintzen lehenengo. Noul kaleratzeko, lu-

“Jende askorengana heldu naiz liburuen booktrailerrei eskerrak”

Zientzia fikziozko eleberri batean, Rakel Duranek mundu paraleloak elkartu ditu



Rakel Durán
Expósito
Idazlea
Elorrio | 1986

zeagoa izan da itxaronaldia, gauza asko batu zaizkit eta. Halden egin nuen bezala, Noulen ere neu arduratu naiz denaz: diseinuaz, make-tazioaz, argazkiez... Banekien nire kabuz egin ahalko nuela, argitaletxean lan hori bera egiten nuelako.

Eta idazten, nola hasi zinen?

13 edo 14 urte nituela hasi nintzen, baina ez nuen buruan nobelarik idaztea; manga komiki baterako gidoia idatzi nuen. Marraztea gustatzen zait, eta komiki bat egin gura nuen. Amaitu nuenean, ikusi nuen ez zela hain ona, eta idazten jarraitu nuen. Konturatu orduko, eskuizkribu bat nuen. Eskuizkribu hori eleberri bilakatu eta laster Amazonera helduko da.

Zeintzuk dira zure erreferenteak?

Txikitan Henry Jamesen *Otra Vuelta de Tuerca* irakurri nuen, eta asko

“Tetralogiaren hirugarren liburuko 500 bat orri ditut idatzita dagoeneko

markatu ninduen. Izugarri atsegin dut Patrick Rothfussen idazteko modua, eta sortu duen mundu fantastikoa. Azkenaldian irakurri

ditudan beste batzuk aipatzearren, Torcuato Luca de Tena, Arturo Perez Reverte, Stephen King edo Anne Rice.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Tetralogiagaz jarraituko dut; hirugarren liburuko 500 bat orrialde ditut idatzita. Bestalde, Hald publikatu nuenean, booktrailerak ipini nituen Youtuben, eta honegaz ere zerbait ona egitea gustatuko litzaidake. Jende askorengana heldu nintzen bide horretatik, eta hainbat herrialde-tatik eskatu zizkidaten liburuak: Mexikotik, Argentinatik, AEBetatik, Kanadatik eta Alemaniatik esate baterako.

'Geometriak eta Fikzioak' erakusketaren bisita gidatua, hilaren 13an

ARTEA • A.M.

Durangoko Arte eta Historia Museoak hainbat ekitaldi antolatu ditu Daniel Txopitearen *Geometriak eta Fikzioak* erakusketaz gozatzeko. Ekainaren 13an, Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak bisita gidatua eskainiko du. Ekainaren 20an, erakusketaren komisario Ainize Txopiteak, Danielen alabak, helduentzako sormen tailerra eskainiko du. 19:00etan hasiko da tailerra, eta, besteak beste, collage eta marrazketa baliabideak erabiliko dituzte. Umeentzat tailer berdina eskainiko du, 27an. Ekintza guztiak doakoak izango dira, baina izena eman beharko da aurretik, 94 6030020 telefono zenbakira deituta edo museo@durango.eus helbidera idatzita.



lazio edizio argazkia.

Hamabi bertsolarik parte hartuko dute VI. Kopla Txapelketan

BERTSOLARITZA • A.M.

Iazko txapelketa Elorrioren izan zen, eta kopla txapelketako seigarren edizio hau Berrizen jokatu da. Gorka Pagonabarraga iazko irabazleaz gainera, Txaber Altube, Miren Amuriza, Eider Gallastegi, Irune Basagoiti, Ander Sarriugarte, Bittor Altube, Iruri Altzerreka, Beñat Ugartetxea, Gorka Lazkano, Garikoitz Sarriugarte eta Igor Elortza arituko dira. Ainhoa Urien eta Leire Vargas izango dira gai-jartzaileak. Gaztetxean izango da saioa, 22:00etan.



GARA

PAPEREZKO
EDIZIOA

GARA egunkaria desagertzeko arrisku larria dago!!!

Izan ere, Gizarte Segurantzari 3 milioi euro baino gehiago ordaindu behar baitio bi urteko epean!!!

GARAK 10.000 pertsona solidarioren laguntza behar du desagertzea ez dadin!!!

GARARI laguntzeko harpidetza mota ezberdinak daude.

Beraz, mesedez, egin itzazue zeuen harpidetzak hemen: **943 316 999** telefonoan / Interneten bidez helbide honetan: **www.naiz.eus**

43 urteren ondoren, Zornotzak Musika Banda berreskuratuko du

Ekainaren 15ean aurkezpen kontzertua eskainiko du, 19:30ean, Zornotza Aretoan



Aritz Labrador bandako zuzendaria, Luciano Martinez zinegotzia, eta Javi Castaño bandako kidea.

Andra Mariko elizpeak Flamenko Etxea proiektuari aterpea emango dio

Domekan izango da kontzertua, ekainak 9, 19:00etan, Euskal Jaiaren barruan



Gorka Hermosa eta Jose Luis Monton.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

1976an desagertutako Musika Banda berreskuratuko dute Zornotzan, eta, aurrerantzean, herriko bizitza sozialean parte hartuko du. Ekainaren 15ean egingo du lehenengo agerraldi publikoa, Aritz Labradorren gidaritzapean. Izan ere, bera izango da bandako zuzendaria. 19:30ean izango da kontzertua. 35 musikaririk erreperitorio zabala eskainiko dute Zornotza Aretoan,

Aritz Labrador izango da bandako zuzendaria; aurrera begirako plan ugari dituela aitortu du

1976an bandakoak ziren kide batzuk ere batu dira proiektu honen berreskurapenera

aurreko bandari omenaldi bat egingo. Musikari horietariko hogei batek osatzen dute egungo Zornotzako Musika Banda, eta denerik dago euren artean, gazte zein adineko. Txapi saxofoi-jotzailea, esaterako, 1976ko bandako kidea izan zen. Aurrera begira ere hainbat ideia dituela aurreratu du Labrador zuzendariak.

MUSIKA • A.M.

Euskal Jaiaren baitan, Tabira Musika Bandak kontzertu berezia eskainiko du Gorka Hermosa, Jose Luis Monton eta Maria Berasartegaz batera. Luis Orduñak zuzenduko du kontzertua. Montonek eta Hermosak gorpuzturiko proiektua da Flamenko Etxea, eta flamenkoaz eta euskal musikaz duten ikuspuntua erakutsiko dute bertan, musika doinu biak uztartuta. Bikoteak izen bereko diskoa kaleratu zuen 2011n, eta, ordutik hona, etenik barik ibili dira berau aurkezten,

Ekainaren 8an, txistua eta flamenkoa uztartzen dituen emanaldia ikusi ahaliko da San Agustin kulturgunean. Silboberrik antolatutako kontzertua da eta 20:00etan hasiko da.

Geure Durangaldea

Ihintza
Orbegozo Igartua
Plateruena



Esperientzia ahaztezina?

'Esperientzia ahaztezina' jartzen du sarreran, eta jendelara luzea pasa ondoren, beste mundu batean zaudela dirudi. Koloretako bonbilaz beteriko zuhaitzak alde batean, haien ingurutik arropa marka ezagun bateko telazko poltsaz beterik atera den neskak bat oparitu dit! Postu txiki ugari korridore bat osatzen, karaoke bati begira gelditu naiz, agian espainiar abesti mitikoren bat abesten ere ausartuko naiz, "como una ola" edo. Mostrako patata zorrotz bat oparitzen dute alboan, izugarritzko jende-ilara dago, baina dedio, merezi du, deialde da eta! Aurrerago dagoen postuko dj-aren inguruan ere jendea ari da dantzatzen, zergatik ote dute guztiek txapel berdina? Kamioitxo batean datozen neska-mutil batzuek likore txupito batzuk eman dizkidate, zuzenean ahora! Aurrean dauzkadan zapatila zuriak erosi eta pertsonalizatzeko txokora joan naiz, eta aurpegia makillatu didaten lekutik, nire telesail gogokoenaren moztorra jantzita argazkia atera dut, sare sozialean traola ugarirekin elkarbanatuko dudala zin eginez, segituan noriara igotzeko. Goitik ikusten den jendetza eta argi erakustaldia izugarria da! Izenik ere ezagutzen ez dudan herrialde bateko janari pikantea jan eta beste txupito batzuk hartuta, giri bat hasi zait hizketan, glamping delakoa zer den badakidan galdetza. Kanpin-denden jauregia omen da, glamourrez betea, eta hura ezagutzera eraman nau, eskutik helduta, alkohol eta noriaren artean sortutako zorabioaz eta oparitzoz beteriko poltsaz. Baina inoiz ahaztuko ez nuen esperientzia hau ez al zen, bada, musika jaialdi bat?

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
Condensacion
MACOBER
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

SOINUA MUSIKA IKASTEGIA Matrikula zabalik!

Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA,
GITARRA, GITARRA ELEKTRIKOA, KORUA



Kalebarrria, 1 - 1 Durango
946 030 338 - soinua@euskalnet.net

Futbol torneo solidarioa jokatu dute Kulturala, Extremeño eta Real Madril taldeetako beterranoek

Ekainaren 15ean Tabira futbol zelaia betetzeko deia egin dute antolatzaileek, ahalik eta dirurik gehien batu dadin

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Hainbat jenderen elkarlanari esker eta Kulturalaren mendeurrena aitzakia moduan hartuta, beterranoen futbol torneo solidarioa antolatuko dute ekainaren 15erako, Durangoko Tabira futbol zelaian. Hiru talde batuko ditu: Kulturala, Extremeño eta Juanito Maravilla Fundaziokoak. Azken horrek Real Madrilako jokalaririk ohiak eta klub horri jarraipena egiten dioten kazetariak batzen ditu.

Sarrerekin batutako dirua lau elkarteren artean banatuko dute: Geu Be, Angelman Sindromea eta SFC-SQM Euskadi AESEC elkarteen eta Juanito Maravilla Fundazioaren



Futbol torneoan parte hartuko duten taldeak eta dirua jasoko duten elkarreetako kideak elkarrekin Tabira futbol zelaian.

arte. "Durangoko eta inguruko herrietako jendeari dei egin gura diogu, Tabira futbol zelaia bete

dezaten. Azkenean, ahalik eta dirurik gehien ateratzea da helburua, elkarrekin laguntzeko", azaldu zuen

Txemi Lopez ekimeneko antolatzaileetarik batek aurkezpen ekitaldian. Joseba Arana Kulturalako

ordezkariak ere "Tabira betetzeko" desioa adierazi zuen.

Partiduak hurrengo zapatuan izango dira, 11:45ean. 40 minutuko hiruna partiduko jokatu dituzte. Sarrerak 5 euro balio du eta Tabira zelaian zein Durangoko hainbat taberna (Centro Extremeño, Udabarrri, Ibaizabal, Anboto, Kale Kantoi eta Lorena dastalekuan) eta establezimendutan eskuratu daitezke.

Iturrasperen kamiseta

Partiduen artean hainbat kamiseta zotz egingo dituzte: Ander Iturraspe eta Fernando Pacheco jokalarie-na, Kulturalako mendeurreneko eta Real Madrilako jokalariek sinatutakoa. Beste hainbat sari ere banatuko dituzte bertaraten diren guztien artean.

Juanito Maravilla Fundaziotik oraindino ez diete baieztatu nortzuk etorriko diren, baina, seguru- enik, Paco Buyo atezain ohi eta Pipi Estrada kazetaria egongo dira Durangora datozenen artean.

Lidia Cañetek errekor bi apurtu ditu Euskadiko arku-tiro txapelketan

Adina beteta, beterranoen mailan aritu zen lehenengoz



Lidia Cañete, marka bat apurtzeko balio izan zion puntuazioaren alboan.

ARKU-TIROA • J.D.

Joan zen asteburuan, Lidia Cañete durangarrak lehenengoz parte hartu zuen beterranoen txapelketan, aurten 50 urte egingo ditu eta. Zaldibar Arku taldeko tiratzailea txapelkun geratu zen eta, gainera, errekor bi apurtu zituen,

60 metroko arku-tiroan 305 puntu eta 50 metrokoan 316 puntu batuta. Euskadin zein estatuan, ez dago puntuazio hori duen beste beterranorik. Espainiako txapelketa izango du hurrengo hitzordua, asteburu honetan.

Ziortza Isasi eta Aroa Gorostiza elorriarrak Euskadiko txapeldun geratu dira errepidean

Ia lasterketa osoa elkarregaz ihes eginga eman zuten

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Errepideko aurtengo Euskadiko Txapelketa berezia izan da, hainbat konturengatik. Alde batetik, herri bereko txirrindulari bi, Ziortza Isasi (Eneicat) eta Aroa Gorostiza (Bizkaia-Durango) elorriarrak, geratu direlako txapeldun, nagusietan eta 23 urtez azpiko mailan; bestetik, ia laster-

keta osoa elkarregaz ihes eginga eman zutelako, eta, azkenik, Aroa Gorostizak bere ibilbideko lehenengo garaipena lortu zuelako, Ugaon, Isasiren aurretik helmugaratuta.

Asteburu berean, Isasik beste bigarren postu bat ere lortu zuen, Barrundiako lasterketan.



Ziortza Isasi eta Aroa Gorostiza Ugaoko podiumean



Olazarmendi klubeko gimnasta gazteak Euskadiko podiumean

GINNASIA ERRITMIKOA • J.D.

Zaldibarko Olazarmendi klubeko kimuek brontzezko domina lortu zuten Euskadiko eskolarteko kirol jokoetan, Ane Antonek, Olaia Onandiak, Ainhize Basterretxeak, Ainhoe Terrobak eta June Cerrosek egindako lanari eskerrak. Buruz buruko saioetan Eider Agirrek eta Beatriz Dos Santosek ere parte hartu zuten Santurtzin jokatu-tako txapelketan. Ekainaren 16an kurtso amaierako erakustaldia egingo dute, Zaldibarren.

XIII. Jurreta Kalez-Kale 2019

ASKONDO

BANTZARI

EKAINAK 14 JUNIO

18:00: Askondon "AUKERAK" Funes Troup BIZKAIA

19:30: Askondon "ECHOS" - Colectivo Eflirkoa IPARRALDEA

20:00: Dantzarin "AL OTRO LADO" - Zuanguango Teatro ARABA

EKAINAK 13 JUNIO

18:30 Askondon euskeraz "SALAM" Xilipurdi BIZKAIA

EKAINAK 15 JUNIO

19:00 Dantzarin "FEMMES" Hortzmuga BIZKAIA

20:00 Dantzarin "KALE GORRIAN" Barsati Teatro BIZKAIA

EKAINAK 16 JUNIO

13:30 Dantzarin euskeraz "AMARRU" Tor Magoa BIZKAIA

hitz

artekalea 23, durango

946 810 776

info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#nobedadeak

SAPIENS
Yuval Noah Harari (2019)

FRUITU ETA BARAZKIEN INBENTARIOA
Aladjidi & Tchoukriel (2019)

OSTO ETA ALE
Osto eta Ale (2019)

Estetika gida

anboto

Ile-apaindegia



NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491



Belardenda eta dietetika

OSASYN - ETXEA

BELAR-DENDA eta DIETETIKA

40 urte baino gehiagoko esperientzia

**PRESOTERAPIA
KOSMETIKA BIOLOGIKOA
BACH LOREAK
NOVALINE METODOA**

AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA

Ermodo kalea, 13 (Madalena galeriak) - DURANGO
Tel.: 688 730 694 - osasunetxea@hotmail.com
f Herboristeria Osasun Etxea

Ile-apaindegia



Salón de belleza

M^a Jesús Luque

UNISEX ILE-APAINDEGIA

✉ Kurutziaga kalea, 9 - DURANGO
☎ 946 81 43 89



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



**Maria Jesus
Luque**

OSASUN ETXEA I

Udara begira, ilerako hidratazio ona proposatzen dugu. Detox txanoarekin buru-azala eta ile kaltetua indartzen dira, ilearen elastikotasuna, distira, bolumena eta indarra berehala hobetuta. Bere formulak ez du osagai oldarkorrik, eta aberatsa da kolagenoari, azido hialuronikoari eta keratinari dagokienez. Agukatearen olioaren, jojobaren, macadamia intxaurrearen, almendraren eta ezti-estraktuaren osagai edergarriek ilea elikatu eta zeta-antzeko eta hidratatuta uzten dute luzaroan. Ile mota guztietarako.

Udaberria eta uda gertakarien garaia da. Gertaera bakoitzerako, ile-orrakera eta ile-bildurik aproposenak proposatzen ditugu.



Iker Salaberria goizuetarrak bigarren urtez jarraian jantzi dezake txapela Biharko Izarrak txapelketan

laz Aitor Arangurenegaz eskuratutako lorpena errepikatzen saiatuko da Iker Elizegi asteasuarragaz

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko Biharko Izarrak pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur, 19:30ean hasiko den jaialdian. Bertan, Iker Salaberria aurrelari nafarrak txapelketa bigarren urtez jarraian irabazteko aukera izango du, binaka.

Iaz, Salaberriak Aitor Aranguren gipuzkoarragaz osatu zuen finaleko bikotea, eta izerdia ondo botata jantzi zuten txapela: 22-21, Javier Zabalaren eta Aitor Alduntziaren kontra.

Aurtengo finalean ez dago faborito argirik. Salaberriak Iker Elizegi asteasuarragaz osatuko du bikotea. Apirilean, elkarregaz joketuta, Goñiren oroimenezko txapelketa irabazi zuten, Donostian. Final hartako aurkari bat, Iñigo Bikuña, aurrez aurre izango dute gaur Mallabian. Laster Aspe enpresagaz

profesionalan debutatzeko den
donostiarrak Oihan Kanabal igan-
tziarra izango du bikotekide.

Binakakoaren aurretik, Gutierrezek eta Larrazabalek lau t'erdiko finala jokatuko dute.

**Salaberriak eta Elizegik
Donostiako pilota
txapelketa bat irabazi
zuten apirilean**

Otaduy finalaren atarian

Gorka Otaduy berriztarrak oso txapelketa ona burutu arren, finalaren atarian geratu da. Finalerdietan, Aitor Etxebarriak eta biek 8-22 galdu zuten, Kanabalen eta Elizegiren aurka. Urduritasunak eraginda, galtzaileek ez zuten euren jokorik onena erakutsi.



Iker Salaberria, joan zen egunean jokaturako finalerdian. **JULEN URIBE**

Asteko kirolaria

“200 metroko oztopo proba ondo prestatu eta munduko errekorra haustea da helburua”

Gonzalo Díaz durangarrak 7 domina kolkoratu ditu Espainiako salbamendu txapelketan

Tabira Igeriketa Taldeko Gonzalo Díaz durangarrak Espainiako salbamendu txapelketa lehiatu zuen joan zen asteburuan, Santandergo (Kantabria) Sardinero hondartzan. Zilarrezko bost domina eta brontzezko bi irabazi zituen.

Espainiako salbamendu txapelketatik zazpi dominagaz itzuli zara. Pozik zaude lortutakoagaz?

Bai, pozarren nago. Gutxi gorabehera, bete ditut helburuak, eta, beraz, pozik egoteko moduan nago. Egia esan, final batzuetan urrearen lehian egon naiz, baina, hala ere, pozik nago egindako lanagaz eta lortutako emaitzagaz, final oso lehiatuak izan dira eta.

Beraz, txapelketa aurretik ezarrita zenituen helburu guztiak bete ahal izan dituzu?

Neukan guztia eta ahal nuen guztia ematea zen nire helburua. Ezin izan ditut txapelketak gura bezala prestatu, lanarengatik eta beste hainbat kontugatik. Beraz, probetan neukan dena ematea zen nire asmoa. Gainera, aitortu behar dut domina lortu dudana probaren batean itxaroten nuena baino hobeto eta aurrerago ibili naizela.

Zilarrezko bost domina eta brontzezko beste bi. Geratu zaizu arantzarik probaren batean urrezko dominarik lortu ez duzulako?

Egia esan, ez. Pozarren nago. Batez
ere, ez nuelako hain emaitza onik

itxaroten. Esaterako, ocean proban, oso aerobikoa den proban, ez nekien aurrean egoteko aukerarik izango nuen, eta, egia esan, igerian oso ondo ikusi nuen neure burua. Bestalde, sky proban, ondo eutsi nien distantziei, eta, taulan, bigarren helmugaratzea lortu nuen.

Zeintzuk dira zure hurrengo helburuak?

Nire helburua, eta Tabira igeri-
keta taldeko kideena ere, 2020an
Italian jokatuko den Munduko
Txapelketara sasoi onean heltzea
izango da. Aurten, ezin izango
gara Europako Txapelketara joan,
baina bai datorren urteko Mun-
duko Txapelketara. Beraz, 200



GONZALO
DIAZ ALVARADO

Durango, Igerilaria

metroko oztipoen proba ondo prestatu eta munduko errekorra haustea izango da nire helburu nagusia. Badakit hori lortzea oso zaila izango dena, baina horretarako prestatu gura dut. Kontziente naiz lan asko egin behar dela errekorra hausteko eta ez dudala denbora askorik entrenatzeko, baina gaztetan ikasi nuen guztia praktikan jarri eta errekorren bila joango naiz. Horrez gainera, gainerako probetan ere lan txukuna egitea izango dut helburu.

**ETXETXO**
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

//AUKERA
TABIRA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Despentsa. Egongela. Terraza. Ganbara. Eguskitzua. Kanpoalderantz. **190.000€** neg.
IURRETA. A ESTRENAR. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Kanpoalderantz. **97.500 €**
OCASIÓN. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Garajea. **98.000 €**.
ABADIÑO. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Despentsa. Egongela handia. Ganbara. **149.000€.**
SAN FAUSTO. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Kanpoalderantz. **85.000€**
DURANGO. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Berogailua. Igogailua. **130.000 €** neg.
KURUTZIAGA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela handia. **99.000 €**
EZKURDI: 3 logela. 2 Bainugela. Sukaldea. Egongela handia. Terraza. Ganbara. **226.000 €**
//ETXEBIZITZAK SALGAI
PLATERUEN PLAZA. AZKEN etxebizitza. 120m². 3 logela. 2 Bainugela. Sukaldea. Egongela. Ganbara. Garajea. **288.000 €**
ERRETENTXU: 2 logela. 2 Bainugela. Sukaldea. Terraza. Egongela. garajea aukeran. **240.000 €.**
ANDRA MARI. 93m². 3 logela. Bainugela. Sukaldea eta egongela. **145.000 €**
MURUETA TORRE. 120m². 4 logela. 2 bainugela. Sukalde handia. Egongela terrazarekin. Trastelekua. 2 garaje plaza. **270.000 €**
ATXONDO . 85m². 3 logela. Bainugela. Egongela. 2 Terraza. Garajea - Txoko. erreformatua. **148.000€**
MENDIZABAL. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Balkoia. Garaje itxia aukeran. **186.000€**
SAN IGNACIO. 100m². 3 logela. 2 bainugela. Horma-armairua. Sukaldea eta egongela handia. Terraza. Kanpoaldeko garajea. Eguskitzua. Alokailuan erosteko aukeran. **256.000 €**
IURRETA. 2 logela. Bainugela. Sukalde-jangela. Egongela. Terraza. Bizitzen sartzeko. Eguskitzua. **115.000 €**
ZABALE (Ask. Etorbidea). 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. **170.000 €**
ANBOTO. Azken pisua. 3 logela. Bainugela. Egongela. Balkoia. Hegoalderantz. **185.000€**
ABADIÑO. Unifamiliarra. 484 m²-ko partzela. 1000 m²-ko lursail eraikigarria (aukeran)
CENTRO. 100m². 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela handia. Garajea aukeran. **229.000 €**
ERROTARITXUENA. Apartamentua. Dana kanpoalderantz. Terraza. Garaje itxia. **220.000€.**
IURRETA. 111m². 3 logela. 2 Bainugela. Sukaldea. Esekitokia. Egongela handia. 12m²-ko terraza. Trastelekua. Garaje. **276.000 €**
BARRIA. ESTREINATZEKO: 3 Logela. 2 Bainugela. Sukaldea. Esekitokia. Egongela. Terraza. Ganbara. Garajea aukeran. **153.000 €**
MATIENA. LAUBIDETA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. 2 Terraza. Eguskitzua.
BERRIZ.: 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. **65.000€**
Zaldibar. 2, 3 logela. Eguskitzua. Kanpoalderantz. Erreformatua. **99.000€**
//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN
TABIRA: GARAJE a pie de calle de 30m²-ko garajea kalean bertan. Argia eta urarekin.
ASK.ETORBIDEA. Garaje plazak **8.000 €**-tik.
ABADIÑO, 160m²-ko lokala. Egokitua. Dana erakusleho. **185.000 €**
ABADIÑO. 75m². **75.000 €**
ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35m². Ekonomikoa.
F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114m². Salmenta **150.000€** (Negoziagarria)
IBAIZABAL. 50m². Guztia jarrita. Salmenta/Alokairua. 500€.

**AMBOTO**
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO. Eraikin berria. Logela biko eta hiruko, azken duplex-ak salgai. 178.000.-€ tik hasita.
DURANGO. Komentukale. Logela biko pisu ederra, sukaldea, egongela, komun bi, oso eguskitzua, igogailua eta gasa badu.
DURANGO. Antso Estegiz. Hiru logelako pisu ederra. Igogailua, gasa oso euskitzua.
DURANGO. Jose Miel Barandiaran. Pisu ederra, hiru logela, komun bi, sukaldea, egongela, garajea eta trasteroa. Aukera ederra Durango erdian bizitzeko.
DURANGO. Komentukale. Pisu ederra, hiru logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela, eta ganbara. Bista ederrak.
BERRIZ. Hiru logelako pisua. Komuna eta egongela ganbara ere badu. Oso eguskitzua eta merkea.
DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m² ganbararekin.
IURRETA. Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitzua. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.
DURANGO. Hegoalde kalean, izugarrizko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobea.
LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.
ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.
ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.
//LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.
BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.
IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.
ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliar bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.
//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
ABADIÑO. Bifamiliarra salgai. 4 logela, hiru komun, sukaldea, egongela, garajea oso polita.
ATXONDO. Marzana. Izugarrizko txaleta salgai ikuspegi bikaina, berri berri!!!
MAÑARIA. Izugarrizko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m². Bizitzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berriztatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000€.
ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.
BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.
MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguskitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.
BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan.
//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO. ABADIÑO. 40 m²-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.
//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000.-€ tik aurrera.
//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA. 460 m²-ko lokala salgai, Bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia.

**Inmobiliaria del Duranguesado**
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com


www.inmoduranguesado.com

**BERRIZ**
350 m²
BERRIZ: AUKERA! TXALET ADOSATU HANDIA! 350 m². 5 solairutan banatuta, igogailuarekin.
395.000€

**DURANGO**
3 logela
2 komun
86 m²
ANDRA MARI: Etxebizitza eskusiboa. Eraikin enblematikoan kokatua. Egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Gaueko tarifa.
285.000€

**DURANGO**
3 logela
2 komun
LARRASOLOETA : Erreformatua estreinatzeko. 89,75 m². 3 logela, egongela, sukaldea (jantzita), 2 bainugela, ganbara. Ekialde/mendebalderantz.
248.000€

**ABADIÑO**
160 m² lokala
AUKERANI: Edozein aktibitate hasteko prest. Erakusleho handiarekin. Bainugela. Tebista eta telefono tomarekin. Aire egokitua, alarma.
185.000€

**BERRIZ**
3 logela
70,1 m²
BERRIZ: Sukaldea (jantzita), egongela, bainugela, balkoia eta trastelekua. 2.015ean erreformatua. Ekialde/mendebalderantz.
180.000€

**ATXONDO**
3 logela
AUKERA!: 3 logela, 1 bainugela, egongela, sukaldea (jantzita), 12 m²-tako despentsa. Altzairuekin jantzita. Ganbara eta garajea.
147.000€

**AGENCIA INMOBILIARIA**
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 beheha • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

//DURANGO
ASKATASUN ETORBIDEA
3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z=F
ANTSO ESTEGIZ
3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E
ERRETENTXU
3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. Garaje itxia aukeran **190.000€** / E.E.Z=E
EZKURDI
4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, 2 bainugela eta igogailua. **260.000 €** / E.E.Z=E
EZKURDI
4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. Lehen 321.500€ / Orain **300.000 €** / E.E.Z=F
KALEBARRIA
2 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela. **82.000€** / E.E.Z=G
KURUTZIAGA
2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000€** / E.E.Z=Bidean
MIKELDI
2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. **250.000€** / E.E.Z= F
SANTIKURUTZ KALEA
Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600m²-ko lur-sorua. 640.000€
ZEHARKALE
2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. Lehen 150.000 € / Orain **130.000 €** / E.E.Z= E
ZUMALAKARREGI
5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000 €** / E.E.Z= E
//ABADIÑO
ZELETABE
3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. Lehen 342.576 € / Orain **288.000€**/E.E.Z=E
ARLOZABAL
2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000 €** / E.E.Z=Bidean
//ATXONDO
ARRAZOLA ERREPIDEA
2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.E=Bidean
//BERRIZ
BERRIZBEITIA KALEA
2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 €** / E.E.Z= F
BILBO ETORBIDEA
3 logela, sukaldea, egongela-jangela, 3 bainugela eta balkoia. Lehen 195.000€ / Orain **180.000€** / E.E.E= E
//IURRETA
FAUSTE
Baserria lurzorugaz, **220.000€** / E.E.Z=G
SANTA MAÑA
3 logela, sukaldea, egongela bainugela trastelekua eta lursailarekin **125.000€**/ E.E.Z=G
DANTZARI KALEA.
3 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela, bainugela. **93.000€**/ E.E.Z=G
//MATIENA
TXINURRISOLO
3 logela, sukaldea egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.Z=F
//MAÑARIA
EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO
3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara. eta txokoa aukeran **150.000€** / E.E.E=Bidean
//OTXANDIO
ELIZABARRI
3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€** / E.E.E=F
//ZORNOTZA
SAN PEDRO KALEA
3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela, ganbara eta garajea. **170.000€** / E.E.Z=Bidean

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoz.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Elorrio. Atiko polita errentan Elorrioren. 50 m2. Igogailuarekin. Tel.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durango. Hiru emakume arduratsu San Fauston edo Durangon alokairuan dagoen etxe baten bila gabiltza, Tel.: 644 93 06 79

Zaldibar. Zaldibarren, herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

Durango. Durangon atiko txiki bat alokatzen dut, igogailuarekin. Bikoteentzako aproposa. Azokaren inguruan. Hilean 490€. Tel.: 695 74 22 38

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Pisu bila nabil, alokairuan. Pisu bat alokatu nahiko nuke, Durangon

San Fauston, edo lurretan. Kontratoarekin, eta 500-600€ hilabete ordaintzeko prest nago. Hurrengo telefonora deitu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644 93 06 79

Elorrio. Elorrioko bikote arduratsu bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorrioren bertan). Tel.: 688 64 06 04

Alokairuko etxe bila lurretan. Bikote gazte, euskaldun, langile eta arduratsua alokairuko etxe bila gabiltza lurretan. Hemen gure Tel.: 688 64 6023

LAN ESKAINTZAK
PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handikoa lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar

esperientziaduna lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612-53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 632 35 60 66

Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. Kaixo, etxeko lanak egiten, zein adineko edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Neska latinoamerikarra naiz, arduratsua, tratu onekoa. Jendearekiko harremana gustatzen zait. Edozein inguru zein pertsonengana egokitze gaitasuna daukat eta azkar ikasten dut. Barneko langile moduan lan egiteko prest nago, adineko pertsonak edo umeak zaintzen edota etxeko lanak eta janaria prestatzeko ere. Berehalako prestutasuna daukat. Bizkaia edota Gipuzkoa. Telefonoz edota

whatsapez kontaktatu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644 93 06 79

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburu eta edo orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile lan bila. Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak, arropa lisatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

Barneko langile lan bila. Emakume arduratsua lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa adineko pertsonak edo haurrak zaintzen lan egingo nuke. Sukaldean ere aritu naiteke. Berehala hasteko

moduan: Tel.: 632 70 52 25

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: Tel.: 643 72 71 98 zenbakira.

Zaintzaile euskaldun baten bila nabil. 8 eta 10 urteko bi umereentzat zaintzaile euskalduna behar da, ekain erditik uztail erdi alderarte, eguerditan. Interesa baduzu, deitu Tel.: 649 56 34 92 honetara, mesedez.

IBILGAILUAK
AUTOAK

Land Rovera erosiko nuke. Land rover defenderra erosiko nuke, berdin du ze egoeratan dagoen, itv gabe, aberiatua, golpearekin... Jarri harremanetan, Tel.: 623 17 95 37

GAINERAKO IBILGAILUAK

Mendiko Bizikleta GT Zaskar. Mendiko Bizikleta / MTB / Marka: GT / Modeloa: Zaskar Elite Alum. / Urtea: 2015 / Erruberak: 27,5" / Tel.: 686 214 964

EUSKARAREN ALDEKO INDARRAK
BIDERKATUZ



Ekainaren 8an




Pinondo etxean

EGITARAUA:

- 10:00 - Ongietorria eta sarrera**
GUKAko kideen eskutik goizaren nondik norakoak
- 10:25 - Jon Sarasuarekin solasaldia**
Euskal Herriko euskalgintzaren ibilbidea, egoera eta egungo erronkak
- 11:00 - Euskal Herriko esperientziak**
Hainbat antolaketa mota eta dinamika interesgarri world-cafe formatuan ezagutzeko
- 11:45 - Atsedena**
- 12:00 - Taldeko dinamikak**
Durangon zein bilgune behar du euskalgintzak? Zein dinamika parte-hartzaile egin behar ditugu?
- 13:45 - Ondorioak eta amaiera**

DURANGOKO EUSKALTZALE GUZTIAK ZAUDETE GONBIDATUTA. DENON IRITZIA DA BEHARREZKOA. ANIMATU ZAITEZ, ZATOZ!



Botikak	
BARIKUA, 7 - 09:00-09:00	09:00-22:00
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 10 - 09:00-09:00
09:00-22:00	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	RUIZ, JUAN EL ALTO-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 8 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 11 - 09:00-09:00
09:00-13:30	DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	RUIZ, JUAN EL ALTO-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	09:00-22:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	EGUAZTENA, 12 - 09:00-09:00
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	RUIZ, JUAN EL ALTO-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN EL ALTO-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	EGUENA, 13 - 09:00-09:00
09:00-22:00	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	RUIZ, JUAN EL ALTO-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
DOMEKA, 9 - 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

Eskubete urte bete dituzu, **Jakes!** Zorionak eta mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez! Jarraitu orain arte bezain maitagarri!

Zorionak, **Irane!** Musu eta belarri tirakada handi bat familia guztiaren partez! Maite zaitugu, potxoli!

Ez zinun uste ipiniko gendunik, ezta? Ba, zelan ez... Zorionak kamarera! Mosu bat

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Txola (765. alea)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.

Zorionak, **Iker!** Musu eta belarri tirakada handi bat familia guztiaren partez!

Zorionak, **Luzia,** zure seigarren urtebetetzean aita Unai, ama Izaskun, Eder, aitteitte Karlos, amama Enkarna, Irati, Endika eta beste senideen partez. Egun polita eta alaia izan

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 21° / 8° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 16° / 10° ☁️	EGUAZTENA 🌡️ 16° / 11° ☁️
DOMEKA 🌡️ 23° / 11° ☁️	MARTITZENA 🌡️ 15° / 11° ☁️	EGUENA 🌡️ 18° / 11° ☁️

R.P.S. 214/06

AINARA Urreta JAINAGA

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

ALDEKOA-OTALORA iturgintza

ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com - 692 859 779
Zubiaurre, 8 **IURRETA** - 946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO** - 944 071 791

“Pintxoetan gauza berriak lantzea gustatzen zait, eta zaporeen arteko kontrastea”

Paule Perezek sortutako 'Muuu' pintxoak saritu dute herritarrek Zornotzako VIII. Jai Alai Pintxo Lehiaketan. Harrituta eta pozik hartu du saria zornotzarrak

Paule Perez Begiristain

(Zornotza, 1995)


- Jan Alai pintxo lehiaketa irabazi du

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Uranga Tabernak irabazi du, bigarren, Zornotzako Jan Alai Pintxo Txapelketan herritarrek emandako saria. Paule Perezek sortutako 'Muuu' pintxoak batu ditu botorik gehien, eta 1.000 euroko saria eskuratu du. Sukaldaritza ikastaro bat egin zuen proba moduan, eta, horren ostetik, argi izan zuen ikasketak horretara bideratu gura zituela. Orain, gozogintzan dihardu Larrabetzuko taberna batean. Dienez, pintxo batek duen itxuragatik erakartzen gaitu, batez ere.

Zerk inspiratu zintuen 'Muuu' pintxo sortzeko?

Aurten, egia esan, asko kostatu zait pintxoak sortzea. Hasiera batean, tomate marmeladagaz lagundutako hanburgesa bat prestatzeko asmoa nuen. Orain urte bi, zapore hori probatu nuen, eta buruan nerabilen. Baina inguruan probatze-
ra eman nuen eta ez zuen arrakastarik izan. Bada, azkenean, batetik aldaketa bat eginda, bestetik beste bat... pintxoak sortu nuen: okela da oinarria, eta gazta kurruskaria, mahonesa, eta pikillo piperrak ditu. Errukola ere ipini nion, kontrastea emateko.



Aurten, bigarren, lortu duzue saria. Itxaroten zenuen saria?

Ez. Inondik inora ere! Iaz ere ez. Oreagaz egindako brik batean gorringoa aurkeztu nuen, oso gutxi frijituta. Kalabazin eta gazta purea zeraman, trufa olioagaz eta oliba beltzez egindako hautsagaz. Koi-larakada bakarrean jateko zen, ahoan zapore eztanda eragiteko. Gorringoa ortuen sortu dudana pintxorik onena da.

Sukaldean zeri ematen diozu garrantzia?

Produktu naturalak eta zapore garbiak gustatzen zaizkit. Adibidez, legatz on bati ez nioke sekula ere saltsarik botako. Pintxoak sortzean, proba eta nahaste asko egin izan ditut.

Lan handia dago pintxo baten atzean?

Uste baino lan eta ordu gehiago dago, bai. Gainera, pintxo landua sortu gura izaten dut eta, batzuetan, ez daukat gura beste baliabiderik. Baina laguntza handia dut Uranga tabernan. Momentuan sortzen zaizkidan ideiak apuntatzen joaten naiz, gero pintxoak lantzeko. Gauza berriak lantzea gustatzen zait, eta zaporeen arteko kontrastea.

Pintxoak barik, plater txikiak egiten dira...

Bai! Gasteizko pintxo lehiaketan, adibidez, pintxo eleganteak ikusi nituen. Itzelak! Gainera, pintxoaren esentziari



Berba bitan

Pintxoak sortzea ala jatea duzu gurago?

Jatea, dudarik barik

Pintxo bat...

Orain zazpi bat urte Far-Far tabernan jan nuen: 'Koyak'

Liburu bat?

'La flor del Argoma'

Mendia ala hondartza?

Biak, igual hondartza gehiago

Pintxo bat jateko toki bat?

Tomasa edo Urtza tabernak

Amets bat?

Ondo jaten den landetxe bat gobernatzea

eusten diote, ez dezan plater itxura hartu.

Betiko pintxoak ala berritzaileak dituzu gurago?

Denerik badago, hobeto!

Zerena sortu du 'Gilda 2.0' pintxoak, ustezko plagioagatik. Zer deritzozu?

Lehiaketa batera bakoitzak sortutako pintxoak aurkezte da logikoa. Gainerakoek egundoko lana egin ondoren pintxoak sortzeko, ez da bidezkoa batek kopiatutako pintxoagaz irabaztea; berritzaileenaren saria, gainera. Ez dakit nork duen errua. Irabazleak dio ez dela ohartu. Dena dela, ez naiz horretan sartuko.

Lauhortza

Sergio Murillo Corzo
Ekonomilaria



Harriez gandi

Zapatu honetarako eguraldi epela eta aterria iragartzen dabe. Arratsalde, Gerediagako zelaia joan, eta euskal zineaz gozatzeko aukera paregabea daukagu, aire librean. Ni, bezperatan, han grabatutako filme berezi batez gatzatutse.

Gerediagara joanez gero, jakizue, hantxe bertan, XIV. mendeaz geroztik, Durangaldeko herrietako ordezkariak batzarrak egiten ebezala. Bardin jarduten eben abadiñarren zein berriztarren ordezkariak, Mallabitik zein Mañaritik etorritakoek. Durangaldeko hamabi elizateetako ordezkariak, batzuetan urietakoek ere, borobilean alkarri begira, harrizko jesarleku banatan, alkarbizitza antolatzen eben. Danek eukezan arazo amankomunak, mugaz gaindikoak, alkarren artean konpondu beharrekoak eta alkarregaz konpondu beharrekoak.

Aspaldiko garaiez nabiltsue, bai, baina gaurkotasun handiko gaiez. Hamaika egun baino ez dira joan, Durangaldeko 43.158 biztanlek gure ordezkariak aukeratu genduzanetik. Garai batean elizateetatik etorritako ordezkarien legez, udaletxeetatik atarako dira eskualdeko ordezkariak. Mendeen joanak, herri-mugaz gaindiko ikuspegiaren beharra areagotu egin dau biztanlearen ardura nagusien konponbidean.

Alkarri entzutearen, aditzearen eta adostearen sinbolo dira Gerediagako zelaiko hamabi harri horreek. Mendeetan egindako eran, bakoitzak bere harritik, norbere ikuspegitik, amankomunean, Durangaldeko erronkei heldu beharrean gagoz. Alkarlanetik, hurrengo lau urteetako filma grabatzeko prest!

DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, Kabilduoste zona eskusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaituz!

946 462 041



www.sukia.com